

# memoria 2009 txostena



**GORABIDE**



ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS  
PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL  
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN  
ALDEKO BIZKAIA ELKARTEA

*La discapacidad intelectual se refiere a limitaciones importantes en el momento actual. Se caracteriza por un funcionamiento intelectual significativamente por debajo de la media, existiendo simultáneamente limitaciones relacionadas en dos o más de las siguientes áreas de habilidades adaptativas: comunicación; autocuidado; vida en el hogar; habilidades sociales; uso de la comunidad; autodirección; salud y seguridad; contenidos escolares funcionales; ocio; y trabajo. Se manifiesta con anterioridad a los 18 años.*

Definición de la Asociación Americana sobre Discapacidad Intelectual (AAID)



Asociación vizcaína en favor de las personas con discapacidad intelectual  
Adimen ezintasuna duten pertsonen aldeko Bizkaiko elkartea

C/ Licenciado Poza nº 14, 2º 48011 Bilbao

Tel. 94 443 12 10

Fax 94 421 93 84

[gorabide@gorabide.com](mailto:gorabide@gorabide.com)

[www.gorabide.com](http://www.gorabide.com)

*Adimen ezintasuna edukitzeak pertsonak une honetan garrantzizko mugak dituela esan nahi du. Pertsonaren adimenaren funtzionamendua batez bestekoaren nahiko azpitik dago eta mugak ditu moldatzeko trebetasun hauetako bitan edo gehiagotan: komunikazioan; norberaren burua zaintzeko trebetasunean; etxeko bizimoduan moldatzeko; gizarteko trebetasunetan; komunitateaz baliatzeko trebetasunean; norberaren burua gidatzeko gaitasunean; osasun eta segurtasun kontuetan; eskolako eduki funtzionaletan; asian; eta lanean. 18 urte bete aurretik agertzen da.*

Adimen Ezintasunaren Amerikar Elkartearen (AAID) definizioa

# índice

Qué es Gorabide		
Misión, visión y valores	2	Zer da Gorabide
		Misioa, ikuspegia eta balioak
Junta Directiva		
y organigrama	3	Zuzendaritza Batzordea
		eta organigrama
Resumen		
ejecutivo	4	Laburpen
		exekutiboa
Objetivos del		
Plan Estratégico	6	Plan Estrategikoaren
		helburuak
Convenios		
y subvenciones	9	Hitzarmenak
		eta diru-laguntzak
Servicios		
y actividades	11	Zerbitzuak
		eta jarduerak
Agrupaciones	31	Elkarteak
Divulgación		
y sensibilización	32	Zabalkundea
		eta sentsibilizazioa
Profesionales	34	Profesionalak
Voluntariado	35	Boluntariotza
Informe económico		
y auditoría	36	Txosten ekonomikoa
		eta auditariotza
Calidad	39	Kalitatea

aur  
ki  
bi  
dea

# Qué es

## QUÉ ES GORABIDE

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia, así como a sus familias y personas o entidades tutoras.

## misión

Mejorar la calidad de vida de las personas de Bizkaia con discapacidad intelectual y sus familias, proporcionando a las personas usuarias y a nuestros clientes institucionales y privados soluciones avanzadas y servicios de calidad, y promoviendo una sociedad más justa y cohesionada.

## visión

Una organización excelente, cohesionada y referente en la provisión de propuestas y soluciones avanzadas y de calidad a las personas con discapacidad intelectual y sus familias.

## valores

Orientación a la persona usuaria, orientación a clientes, solidaridad, profesionalidad, participación, reivindicación, innovación, mejora continua y transparencia.

# Zer da

## ZER DA GORABIDE

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkar-tea da, Bizkaiko adimen ezintasuna duten pertsonei eta haien familieei edo tutorei laguntzera bideratua.

## misioa

Bizkaiko adimen ezintasuna duten pertsonen eta haien familien bizi kalitatea hobetzea, era-biltzaileei eta bezero instituzional eta pribatuei konponbide aurreratuak eta kalitateko zerbitzuak eskainiz, eta gizarte zuzenagoa eta ko-hesionatuagoa sustatzu.

## ikuspegia

Erakunde bikain, kohesionatua eta adimen ezintasuna duten pertsonei eta haien familieei laguntzeko proposamen eta ekimen aurrera-tuak eta kalitatekoak eskaintzen erreferentea.

## balioak

Erabiltzailearentzako orientazioa, bezeroa-rentzako orientazioa, elkartasuna, profesio-naltasuna, parte hartzea, aldarrikapena, berrikuntza, etengabeko hobekuntza eta garden-tasuna.

## JUNTA DIRECTIVA 2010

Nombrada en la Asamblea General del 26 de mayo

Presidente | Presidentea  
Hugo Baroja Fernández

Vicepresidente | Presidente ordea  
José Ramón Caubilla Arbaizar

Secretaria | Idazkaria  
Mª Carmen Díez Marín

Tesorero | Diruzaina  
Germán Etxebarria Clemente

## 2010 ZUZENDARITZA BATZORDEA

Maiatzaren 26ko Batzar Nagusian izendatuta

Vocales | Bokalak

Ana María Etxebarria Ocerín

Beatriz del Val García

Benedicta Fernández Terreros

Enrique Vicente Gómez

José Luis Pastor Vega

Manuel Suárez Morea

María Linares Morera


Miguel Buisan Santos

Saturnino Infante García

Susana Gorbeña Etxebarria

Victoria Ontoria Pérez

## ORGANIGRAMA



# Resumen

## RESUMEN EJECUTIVO

**E**l comportamiento de Gorabide en el año 2009 ha sido satisfactorio, desde un punto de vista tanto cuantitativo como cualitativo. Así lo demuestran el 95,79% de las acciones del Plan de Gestión 2009 cumplidas o en curso, y la evolución positiva de determinados indicadores de la actividad de la asociación.

Esto indica que la **capacidad de trabajo y seriedad** con los compromisos alcanzados constituyen una de las señas de identidad de la asociación. Así lo indican también los índices de satisfacción de familias y personas tutoras, y la percepción de la sociedad –medidas en sendas encuestas–, o la progresión en el modelo de calidad EFQM.

Durante el año, se ha continuado desarrollando los **proyectos emprendidos en 2008**, como el Proyecto para el desarrollo de la ética en Gorabide, el Plan de gestión por competencias, el de Procesos y el de Comunicación, y se han dado pasos en el trabajo por mejorar la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres en la organización.

Además, se ha comenzado el **abordaje de nuevas estrategias** contempladas en la planificación 2008-2011. De es-

te modo, se ha elaborado el Diagnóstico de Necesidades Formativas, se ha destinado un total de 4.147 horas anuales a actividades relacionadas con formación, y se ha preparado el Proyecto de liderazgo, de cara a desarrollarlo en 2010.

También se ha trabajado por integrar los **principios del Plan Estratégico 2008-2011** en la práctica cotidiana de la organización. Destacan el despliegue de cinco de los diez procesos clave prioritarios de Gorabide y la culminación del proyecto de gestión por competencias. Todo ello, en un formato de equipos de trabajo transversales.

Igualmente, se ha mantenido una especial atención a los **cambios normativos**, desde la participación de la asociación en Fevas (la federación vasca de asociaciones en favor de las personas con discapacidad intelectual). Se han estudiado propuestas y presentado alternativas, por ejemplo, en lo relacionado con la cartera de servicios.

Y se ha conseguido realizar toda la actividad de manera que se ha finalizado el ejercicio **dentro de los límites presupuestarios establecidos**.

# Laburpen

## LABURPEN EXEKUTIBOA

Gorabideren ibilbidea 2009. urtean egokia izan da, ikuspegi kuantitatibotik zein kualitatibotik. Izan ere, 2009ko Kudeaketa Planeko ekintzen %95,79 burututa daude edo eginbidean dira, eta elkartearren jardueraren adierazleek eboluzio positiboa izan dute.

Horrek garbi erakusten du **lan egiteko ahalmena** eta hartutako konpromisoekiko erantzukizuna direla elkartearren bereizgarrietako bi. Elkartearren jardun egoki horren erakusgarri dira, era berean, familien eta tutoreen gogobetetasun-maila eta gizartearren pertzepzioa, inkestan bidez neurtuak, eta EFQM kalitate-eremuan egin den aurrerapena.

Urtean zehar, elkartea **2008an hasitako proiektuak** garatzen jarraitu du; bestek beste, Gorabiden etika garatzeko proiektua, gaitasunetan oinarritutako kudeaketa-plana, prozesuetan oinarritutako kudeaketa-plana eta komunikazio-plana; eta hainbat pauso eman dira erakundean gizonezkoen eta emakumezkoen aukera-berdintasuna lortzeko ahaleginean.

Gainera, 2008-2011 epearen plangintzan pentsatutako **estrategia berriei heldu zaie**. Hala, Prestakuntza Beharrizanen Diagnostikoa egin da, urtean 4.147 ordu erabili dira prestakuntzarekin zerikusia duten ekintzetan, eta lidergoari buruzko proiektua prestatu da, 2010ean garatzeko asmoz.

Bestalde, **2008-2011 epeko plan estrategiko printzipioak** erakundearen eguneroko jardunera ekartzeko ahalegina egin da. Azpimarratzeko da Gorabideko funtsezko hamar prozesuetatik bost hedatu izana eta gaitasunen araberako kudeaketa egiteko proiektua burutu izana. Hori dena zeharkako lan-taldeetan egin da.

Bestalde, aparteko arreta eman zaie **arauen aldaketei**, Fevasen parte hartuz (adimen ezintasuna dutenen aldeko elkarteen euskal federazioa). Proposamenak aztertu eta aurkezten dira, adibidez, zerbitzu-multzoaren gainekoak.

Eta, gainera, **aurrekontuen mugen barruan** burutu da ekitaldia.



# Objetivos

## OBJETIVOS DEL PLAN ESTRATÉGICO

**E**l segundo Plan Estratégico de Gorabide recoge las principales pautas de actuación de la asociación para el periodo 2008-2011. En su proceso de elaboración, se ha mantenido la apuesta decidida de esta entidad por la dirección estratégica como piedra angular de su sistema de gestión, que ya caracterizó el primer Plan Estratégico (2004-2007).

### mejorar la calidad de vida de las personas usuarias

- Prestar servicios de calidad, con calidez y ética.
- Lograr la satisfacción de las personas usuarias.

### crecer de forma sostenida, manteniendo la calidad del servicio

- Mantener el número de personas usuarias/año en el Servicio de Ocio y Tiempo Libre.
- Mantener el liderazgo en el sector.

### fidelizar las relaciones con clientes institucionales

- Conveniar el Servicio de Ocio y Tiempo Libre.
- Desarrollar las relaciones con clientes institucionales.

### obtener el reconocimiento social como referentes en discapacidad intelectual

- Incrementar la notoriedad de Gorabide.
- Mejorar la imagen de las personas con discapacidad intelectual.

### aprovechar el conocimiento externo e interno

- Conocer las últimas tendencias del sector.
- Gestionar el conocimiento *ad intra*.

### desarrollar servicios de calidad, eficaces y eficientes

- Adaptar los servicios a los perfiles de las personas usuarias.
- Mejora de la calidad de atención y de la eficacia.
- Mejora de la eficiencia en la prestación de servicios.
- Desarrollar alianzas para la mejor prestación de los servicios.
- Asegurar financiación para proyectos internos / desarrollo de servicios.

### mantener una base social amplia y cohesionada

- Incrementar la participación de las familias.
- Mantener el nivel de voluntariado.
- Mantener el número de personas usuarias.

contar con personas preparadas,  
motivadas e implicadas

- Incrementar la satisfacción de las personas.
- Contar con número adecuado de personas en tiempo y con el perfil requerido.
- Desarrollar el liderazgo.

consolidar el modelo de calidad

- Avanzar en la excelencia en la gestión.
- Desarrollar la actividad del Equipo Promotor de Ética.



## Helburuak

PLAN ESTRATEGIKOAREN  
HELBURUAK

Gorabideren bigarren plan estrategikoak elkartea 2008-2011 eperako izan nahi duen jardunbidea jasotzen du. Lehenengo plan estrategikoaren ildotik (2004-2007), honetan ere zuzendaritza estrategikoa da kudeaketa-sistemaren ardatza.

erabiltzaileen bizi-kalitatea  
hobetzea

- Kalitateko zerbitzuak ematea, berotasunez eta etikaz.
- Erabiltzaileak gustura egon daitezen lortzea.

apurka-apurka hazten  
jarraitzea, zerbitzuaren  
kalitateari eutsiz

- Urteko erabiltzaile-kopuruari eustea  
Astialdiko Zerbitzuan.
- Sektorean lidergoari eustea.

## bezero diren erakundeekiko harremanak leialtza

- Astialdiko Zerbitzua hitzartzea.
- Bezero diren erakundeekiko harremanak garatza.

## gizarteak Gorabide erreferentetzat hartza adimen ezintasunaren arloan

- Gorabideren sona areagotzea.
- Adimen ezintasuna duten pertsonen irudia hobetza.

## kanpoko eta barruko jakintza aprobetxatzea

- Sektoreko azken joerak ezagutzea.
- Ad intra jakintza kudeatza.

## kalitateko eta eraginkortasuneko zerbitzuak garatza

- Zerbitzuak erabiltzaileen ezaugarrietara egokitza.
- Laguntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetza.
- Zerbitzuak ematean eraginkorragoak izatea.
- Aliantzak garatza, zerbitzuak hobeto emateko.
- Barruko proiektuak aurrera eramateko eta zerbitzuak garatzeko finantzabideak ziurtatzea.

## gizarte-oinarri zabal eta kohesionatua mantentzea

- Familien parte-hartza gehitza.
- Boluntario-kopuruari eustea.
- Erabiltzaile-kopuruari eustea.

## pertsona prestatuak, motiba- tuak eta inplikatuak edukitzea

- Pertsonak gusturago egon daitezen lortzea.
- Behar den beste jende eta behar den profila duena edukitzea.
- Lidergoa garatza.

## kalitate-eredua sendotzea

- Kudeaketaren bikaintasunerako bidean aurrera egitea.
- Etika sustatzeko taldearen jarduera garatza.

# Convenios

## CONVENIOS Y SUBVENCIONES

Buena parte de los servicios que presta Gorabide, considerados de carácter público, han sido conveniados con instituciones públicas, principalmente la Diputación Foral de Bizkaia, y entidades privadas con fuerte implicación social como BBK. Además, varios ayuntamientos ceden locales o aportan subvenciones, junto con la institución foral, el Gobierno Vasco y organismos estatales.

### convenios

diputación foral de bizkaia

- 8 residencias: 332 personas beneficiadas.
- 11 centros de día: 176 personas beneficiadas.
- 9 viviendas: 58 personas beneficiadas.
- 1 residencia de estancias temporales: 171 pers. benef.
- Servicio de apoyos: 18 personas beneficiadas.



Diputación Foral de Bizkaia  
 Gobernación Social  
 Departamento de Acción Social

bbk / diputación foral de bizkaia

- Servicio SAIOA:  
 4.439 personas beneficiadas.



Diputación Foral de Bizkaia  
 Gobernación Social  
 Departamento de Acción Social

### cesiones

diputación foral de bizkaia

- 5 centros de día.
- 3 residencias.
- 2 viviendas.

bbk

- 1 residencia de estancias temporales.
- Oficinas del Servicio SAIOA.

### cesiones

ayto. de portugalete

- 2 centros de día.

ayto. de barakaldo

- 1 centro de día.

ayto. de erandio

- 1 centro de día.

ayto. de derio

- Sesiones de cine gratuitas.

gobierno vasco

- 1 centro de día.

tesorería de la seguridad social

- 1 centro de ocio y tiempo libre.

### subvenciones

inversiones en centros

Diputación Foral de Bizkaia, BBK, Fund. Once.

servicio saioa

BBK.

voluntariado | educación especial  
 Gobierno Vasco.

ocio y tiempo libre | activ. asociativa  
 Diputación Foral de Bizkaia, Ayuntamientos de Arrieta, Mungia, Ermua, Gernika, Getxo, Gatico, Fruiz, Meñaka, Maruri y Kortezubi, Sestao, Bilbao, Santurtzi, Lekeitio; Fundación Víctor Tapia; e Imserso.

actividades en el municipio  
 Aytos. de Iurreta y de Durango.

# Hitzarmenak

## HITZARMEN ETA DIRU-LAGUNTZAK

Gorabidek ematen dituen zerbitzu asko izaera publikokotzat jotzen dira eta erakunde publikoekin hitzartu dira, batez ere Bizkaiko Foru Aldundiarekin, baita gizartearen parte-hartze handia duten erakunde pribatuiek ere, batik bat BBKrekin. Bestalde, hainbat udalek lokalak lagatzen dizkiote elkarteari eta diru-laguntzak ematen dizkiote, Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta estatuko zenbait erakunderekin batera.

### hitzarmenak

bizkaiko foru aldundiarekin

- 8 egoitza: 332 onuradun.
- 11 eguneko zentro: 176 onuradun.
- 9 etxebizitza: 58 onuradun.
- 1 aldi baterako egoitza: 171 onuradun.
- Laguntzeko Zerbitzua: 18 onuradun

bbkrekin / bizkaiko foru aldundiarekin

- SAIOA Zerbitzua:  
4.439 onuradun.



### lagapenak

bizkaiko foru aldundiak

- 5 eguneko zentro. • 3 egoitza.
- 2 etxebizitza.

bbk-k

- 1 aldi baterako egoitza.
- SAIOA Zerbitzuko bulegoak.

### lagapenak

portugaleteko udalak

- 2 eguneko zentro.

barakaldoko udalak

- 1 eguneko zentro.

erandioko udalak

- 1 eguneko zentro.

derioko udalak

- Doako zinema-emanaldiak.

eusko jaurlaritzak

- 1 eguneko zentro.

gizarte segurantzaren diruzaintzak

- 1 astialdiko zentro.

### diru-laguntzak

inbertsioak zentroetan

Bizkaiko Foru Aldundiak, BBK-k, Once Fund.-k

saioa zerbitzuari

BBK-k.

boluntarioei | hezkuntza bereziari  
Eusko Jaurlaritzak.

astialdiari | elkartegintzari

Bizkaiko Foru Aldundiak, Arrietako, Mungia, Ermuako, Gernikako, Getxoko, Gatikako, Fruizko, Meñakako, Maruriko, Kortezubiko, Sestako, Bilboko, Santurtziko eta Lekeitio udalek; Víctor Tapia Fundazioak; eta Imsersok.

udaleko ekintzei

Iurreta eta Durangoko udalek.

# Zerbitzuak

## ZERBITZU ETA JARDUERAK

# Servicios

## SERVICIOS Y ACTIVIDADES



		Usuarios/as Erabiltzaileak	Centros Zentruak
Residencias   Egoitzak		339	8
Viviendas   Etxebizitzak		39	7
Apoyos para la vida independiente	Norbere kasa bizitzeko laguntzak	19	-
Residencia de estancias temporales	Aldi baterako egotaldietarako egoitza	75 (346 ingresos/sarrera*)	1
Acogida, información, orientación y apoyo	Harrera, informazio, orientazio eta laguntza	4.439	1
Centros de día   Eguneko zentroak		169	9
Atención temprana   Laguntza goiztiarra		12	1
Ocio y tiempo libre   Aisia eta astialdia		1.438 <b>plazas plazak</b>	
Vacaciones   Oporrak		603	25 <b>turnos txanda</b>
Formación y participación familiar	Familien prestakuntza eta partaidetza	143	6 <b>grupos talde</b>
Grupos autogestores   Autogestore-taldeak		50	4 <b>grupos talde</b>

\* Cada año, se producen varios ingresos por persona, de entre 15 días y 3 meses  
Urtero, pertsona bakoitzak sarrera batzuk egiten ditu. Egonaldiak 15 egunetik 3 hilabetera bitartekoak dira.

# Residencias

## RESIDENCIAS

Gorabide gestiona nueve residencias para personas con discapacidad intelectual, en las que se ofrece alojamiento, manutención, cuidados personales, apoyo en las actividades diarias, asistencia personal, familiar y social, y ocupación activa del tiempo libre y de ocio.

### **atxarte (abadiño)**

**70 residentes**

#### acciones destacadas

- Celebración del 25º aniversario de la residencia.
- Rediseño de los proyectos de ocupación y ocio.
- Jornada de puertas abiertas para familias y tutores/as.
- Adecuación de varias zonas para actividades.
- Acondicionamiento de un espacio para fisioterapia.
- Renovación de parte del mobiliario.

### **eguzkia / haizea (sopuerta)**

**82 residentes**

#### acciones destacadas

- Primera fase de reforma y adaptación de Haizea.
- Estudio de necesidades emergentes de residentes.
- Afianzamiento de la estructura profesional.
- Mejora del protocolo de nuevas incorporaciones.
- Reuniones mensuales entre unidades para unificar criterios, planificar acciones y proponer mejoras.

# Egoitzak

Gorabidek Adimen ezintasuna duten pertsonentzako bederatzi egoitza kudeatzen ditu. Egoitza horietan zerbitzu hauek ematen dira: ostatua, mantenua, zainketa personalak, eguneroko gauzak egiteko lagunza, pertsona-, familia- eta gizarte-lagunza, eta astialdiko eta aisiako jarduerak.

### **atxarte (abadiño)**

**70 bizilagun**

#### ekintza aipagarriak

- Egoitzaren 25. urteurrena ospatu.
- Aisiako eta okupazioko proiektuak berritu.
- Familiei eta tutoreei ateak zabaltzeko eguna antolatu.
- Leku batzuk jardueretarako egokitua.
- Leku bat fisioterapiarako egokitua.
- Altzariak berritu.

### **eguzkia / haizea (sopuerta)**

**82 bizilagun**

#### ekintza aipagarriak

- Haizea berritzeko eta egokitzeko lehenengo fasea.
- Bizilagunen beharrizan berriak aztertu.
- Profesionalen egitura sendotu.
- Berriak hartzeko protokoloa hobetu.
- Unitateak hilean behin elkartu, irizpideak batzeko, ekintzak planifikatzeko eta hobekuntzak proposatzeko.

### arteagoiti (basauri)

45 residentes

#### acciones destacadas

- Implantación del proyecto de actividad ocupacional.
- Desarrollo del proyecto de ocio con ofertas externas.
- Revisión progresiva de los perfiles de apoyo iniciales.
- Creación de un grupo de autogestores en el centro.
- Jornada de puertas abiertas para familias y tutores/as.
- Adaptación total del centro y asfaltado exterior.

### ibarreta-zuloko (barakaldo)

60 residentes

#### acciones destacadas

- Consolidación de la estructura de ocupación y ocio.
- Aumento de la revisión de perfiles y planes de apoyo y de las historias de salud.
- Afianzamiento de la organización interna de viviendas.
- Continuación de la adecuación de la instalación a las necesidades de las personas usuarias.

### isasti (lanestosa)

25 residentes

#### acciones destacadas

- Consolidación de un sistema de intimidad y privacidad.
- Realización de los protocolos sanitarios.
- Revisión de perfiles de apoyo.
- Reunión con todas las familias .
- Mejoras estructurales y funcionales de la instalación.
- Grupo de personal sustituto habitual experimentado.

### arteagoiti (basauri)

45 bizilagun

#### ekintza aipagarriak

- Jarduera okupazionalerako proiekta ezarri.
- Aisiako proiekta garatu kanpoko eskaintzekin.
- Hasierako laguntza-profilak berraztertzen joan.
- Autogestore-talde bat sortu.
- Familiei eta tutoreei atea zabaltzeko eguna.
- Zentroa guztiz moldatu eta kanpoaldea asfaltatu.

### ibarreta-zuloko (barakaldo)

60 bizilagun

#### ekintza aipagarriak

- Okupazioko eta aisiako egitura sendotu.
- Profilen, laguntza-planen eta osasun-historien azterketa sarriago egin.
- Etxebizitzen barne-antolaketa sendotu.
- Instalazioak erabiltzaileen beharrizanetara egokitzen jarraitu

### isasti (lanestosa)

25 bizilagun

#### ekintza aipagarriak

- Intimitate eta pribatutasun sistema sendotu.
- Osasun-protokoloak egin.
- Laguntza-profilak berraztertu.
- Familia guziekin batzartu.
- Instalazioan hobekuntza estrukturalak eta funtzionalak egin.
- Ordezko langile eskamentudun finkoen taldea osatu.

## plazakola (markina)

19 residentes

### acciones destacadas

- Realización de actividades variadas y estructuradas.
- Actividades comunes para fomentar la relación entre grupos afines.
- Impulso del diálogo para gestionar conflictos.
- Revisión de los perfiles de apoyo y líneas de trabajo.
- Mejora de los niveles de autonomía y participación.

## sta. eugenia (getxo)

20 residentes

### acciones destacadas

- Generación de mayor "vida de hogar" en la residencia.
- Organización individual de cada grupo de convivencia.
- Fomento de la comunicación entre los grupos.
- Participación en tareas comunes y toma de decisiones.
- Programación de actividades para vacaciones y festivos.
- Revisión de los 20 perfiles de apoyo.

## dolaretxe (bilbao)

18 residentes

### acciones destacadas

- Desarrollo de la autonomía y la responsabilidad.
- Actualización conjunta de las líneas de trabajo.
- Planificación de tareas más sencilla y adecuada.
- Mejora en la organización de actividades de ocio.
- Revisión de los 18 perfiles de apoyo.
- Pequeñas mejoras (pintura, TDT, persianas, baldas...).

## plazakola (markina)

19 bizilagun

### ekintza aipagarriak

- Era askotako jarduera egituratuak egin.
- Elkarrekin ekintzak egin, antzeko taldeen arteko harremanak bultzatzeko.
- Elkarrizketa bultzatu gatazkak kudeatzeko.
- Laguntza-profilak eta lan-ildoak berreaztertu.
- Autonomia-maila eta parte-hartzearena hobetu.

## sta. eugenia (getxo)

20 bizilagun

### ekintza aipagarriak

- Egoitzan "etxe giro" handiagoa sortu.
- Elkarrekin bizi diren taldeak banan-banan antolatu.
- Taldeen arteko komunikazioa sustatu.
- Denenak diren lanetan eta erabakiak hartzeko orduan parte hartu.
- Oporretarako eta jaiegunetarako ekintzak programatu.
- 20 laguntza-profilak berraztertu.

## dolaretxe (bilbao)

18 bizilagun

### ekintza aipagarriak

- Autonomia eta erantzukizuna garatu.
- Lan-ildoak eguneratu.
- Zereginak modu errazagoan eta egokiagoan planifikatu.
- Aisiako ekintzen antolaketa hobetu.
- 18 laguntza-profilak berraztertu.
- Hobekuntza txikiak (pintatu, TDT, pertsianak, apalategiak...).

# Viviendas

Gorabide dispone de siete viviendas para personas con discapacidad intelectual que necesitan apoyos. Son pequeñas unidades residenciales de tipo comunitario, centradas en potenciar la convivencia y el reparto de tareas, así como el uso del entorno para el desarrollo personal.

## general salazar (bilbao) 14 residentes

acciones destacadas

- Incremento de la organización de actividades de ocio.
- Fomento de las relaciones de grupo y buen ambiente.
- Potenciación de la autonomía personal.
- Revisión de los 14 perfiles de apoyo.
- Trabajos de mantenimiento
- Varias reparaciones.

## deusto 1 (bilbao) 8 residentes

acciones destacadas

- Enriquecimiento de la convivencia del grupo.
- Celebración del aniversario de la vivienda.
- Fomento de autonomía y asunción de responsabilidades.
- Revisión de los ocho perfiles de apoyo.
- Uso del medio externo para el desarrollo personal.
- Pequeños ajustes y mejoras en el piso.

# Etxebitzak

## ETXEBIZITZAK

Gorabidek zazpi etxebitzitza dauzka laguntzak behar dituzten adimen urriko pertsonentzat. Etxe komunitario txikiak dira, eta bertan bizikidetza, lanen banaketa eta inguruaren erabilera bultzatzen dira, norberaren garapenaren mesedetan.

## salazar jenerala (bilbo) 14 bizilagun

ekintza aipagarriak

- Aisiako jarduera gehiago antolatu.
- Talde-harremanak eta giro ona bultzatu.
- Norberaren autonomia bultzatu.
- 14 lagunza-profilak berraztertu.
- Mantentzen-lanak.
- Konponketak.

## deusto 1 (bilbo) 8 bizilagun

ekintza aipagarriak

- Taldearen bizikidetza aberatsagoa egin.
- Etxebitzaren urteurrena ospatu.
- Autonomia eta erantzukizuna sustatu.
- 8 lagunza-profilak berraztertu.
- Kanpoko inguruaz baliatu norberaren garapenerako.
- Egokitzapen eta hobekuntza txikiak egin pisuan.



## **deusto 2 (bilbao)**

**4 residentes**

### acciones destacadas

- Cambio de domicilio (incremento de calidad de vida).
- Trabajo sobre el ámbito privado dentro de la vivienda.
- Cuidado de la propia salud, con el apoyo necesario.
- Mejora de imagen (peluquería, ropa, etc.).
- Revisión de los cuatro perfiles de apoyo.

## **sestao**

**4 residentes**

### acciones destacadas

- Adecuación y sistematización del área de salud.
- Ensayos de gestión económica autónoma con apoyo.
- Programa de hábitos saludables (dieta y deporte).
- Contratación un servicio de limpieza externo.
- Revisión de los cuatro perfiles de apoyo.
- Pequeñas mejoras en la vivienda.

## **deustu 2 (bilbo)**

**4 bizilagun**

### ekintza aipagarriak

- Etxez aldatu (bizi-kalitatea hobetu).
- Etxe-barruan arlo pribatua landu.
- Norberaren osasuna zaindu, behar den laguntzaz.
- Irudia hobetu (ilea, arropa, etab.).
- Laguntza-profilak berraztertu.

## **sestao**

**4 bizilagun**

### ekintza aipagarriak

- Osasun-arloa egokitu eta sistematizatu.
- Kudeaketa ekonomikoa egiten hasi laguntzaz.
- Ohitura osasungarriak hartzeko programa (elikadura eta kirola).
- Kanpoko garbiketa-zerbitzua kontratatu.
- Laguntza-profilak berraztertu.
- Etxean hobekuntza txikiak egin.

**Santutxu (bilbao)****4 residentes**

## acciones destacadas

- Ocupación de la plaza vacante del año 2008.
- Reconfiguración y ajuste del grupo, tareas y organización.
- Adquisición de nuevo mobiliario.
- Planificación conjunta de las líneas de trabajo.
- Evaluación del seguimiento del área de salud.
- Cuidado de la alimentación (saludable, elaborada...).
- Revisión de todos los perfiles de apoyo.

**deusto 3 (bilbao)****3 residentes**

## acciones destacadas

- Cambio de integrantes del grupo de convivencia.
- Apoyo del psicólogo en las relaciones de convivencia.
- Servicio externo de limpieza dos días a la semana.
- Cambio de muebles y arreglos varios.
- Revisión de los perfiles de apoyo.

**deusto 4 (bilbao)****2 residentes**

## acciones destacadas

- Gestión y organización del gasto y la vida en el hogar.
- Uso de servicios comunitarios.
- Mantenimiento de la vivienda.
- Seguimiento del área de salud.
- Fomento de la autodirección
- Revisión de los perfiles de apoyo.

**santutxu (bilbo)****4 bizilagun**

## ekintza aipagarriak

- 2008an hutsik geratutako lekua bete.
- Taldea, zereginak eta eraketa berrantolatu.
- Altzari berriak erosi.
- Lan-ildoak elkarrekin planifikatu.
- Osasun-arloaren jarraipena ebaluatu.
- Elikadura zaindu (osasungarria, landua...).
- Lagunza-profil guztiak berraztertu.

**deusto 3 (bilbo)****3 bizilagun**

## ekintza aipagarriak

- Bizikidetza-taldeko kideak aldatu.
- Psikologoak lagundu bizikidetzako harremanetan.
- Astean bitan kanpoko garbiketa-zerbitzua.
- Altzariak aldatu eta konponketa batzuk egin.
- Lagunza-profilak berraztertu.

**deusto 4 (bilbo)****2 bizilagun**

## ekintza aipagarriak

- Etxeko gastuak eta bizimoduak kudeatu.
- Zerbitzu komunitarioak erabili.
- Etxea mantentzeko lanak egin.
- Osasun-arloaren jarraipena egin.
- Norberaren bizitzaren gidaritza sustatu.
- Lagunza-profilak berraztertu.

# Apoyos

## APOYOS PARA LA VIDA INDEPENDIENTE

Gorabide proporciona cobertura a personas con discapacidad intelectual que viven en nueve viviendas propias y precisan apoyo puntual para cuestiones como gestión y organización de gastos, detección de necesidades, uso de servicios comunitarios, mantenimiento de la vivienda o fomento de la autodirección.

# Laguntzak

## NOR BERE KASA BIZITZEKO LAGUNTZAK

Gorabidek lagunza ematen die beren etxeen beren kasa bizi diren adimen urriko pertsonel. Bederatzi etxebizitzan laguntzen du gastuen kudeaketan eta antolaketan, etxearen mantentze lanetan, zein beharrian dituzten antzemanez, zerbitzu komunitarioak eskura jarriaz eta norberaren bizitzaren gidaritza bultzatzuz.

POBLACIÓN   HERRIALDEA	PERSONAS USUARIAS   ERABILTZAILEAK
Bilbao-Bilbo	hasta junio, 5 (en 3 viviendas   3 etxetan), ekainera arte desde junio, 2 (en 2 viviendas   2 etxetan), ekainetik aurrera
Durango	6 (en 3 viviendas   3 etxetan)
Balmaseda	1
Erandio	1
Las Arenas-Areeta	1
Sestao	1
Barakaldo	1
Lekeitio	1



# Estancias

## RESIDENCIA DE ESTANCIAS TEMPORALES OLA

La Residencia de Estancias Temporales Ola, ubicada en el Centro Ola BBk de Sondika, permite a las personas con discapacidad intelectual convivir en un entorno distinto al habitual, y facilita un descanso a sus familias para que puedan continuar con su cuidado el resto del año. Dispone de 28 plazas, para estancias de entre 15 días y tres meses.

### acciones destacadas

- Creación de un sistema de recogida, seguimiento y tratamiento de información de las personas usuarias en cada estancia temporal.
- Implantación de un sistema de registro diario de la información de salud, conductual y social relevante para la atención de las personas usuarias.
- Mejora de la implicación activa de todo el equipo de la residencia en los proyectos a desarrollar.
- Folleto explicativo y aclaratorio de dudas sobre las estancias, para las familias que acuden a la residencia.
- Articulación de la información bidireccional de las personas usuarias de la residencia de estancias temporales y los centros de día, para mejorar la atención que precisa cada una de ellas.

# Egotaldiak

## OLA ALDI BATERAKO EGOTALDIETARAKO EGOITZA

Sondikako Ola BBK zentroan dagoen Aldi Baterako Egotaldietarako Ola Egoitza, adimen ezintasuna duten pertsonek ohiko bizotikitik kanpoko elkarbizitza-esperientzia bat bizitzeko aukera dute, eta familiek atsedendaldi bat hartzeko modua daukate, urteko gainerako egunetan senitarteko zaintzen jarraitu ahal izateko. 28 leku ditu eta egonaldiak 15 egunetik 3 hilabetera bitartekoak dira.

### ekintza aipagarriak

- Aldi baterako egonaldi bakoitzean, erabiltzaileen informazioa batzeko eta haren jarraipena eta tratamendua egiteko sistema bat sortu.
- Erabiltzaileen osasun-, jokabide- eta gizarte-arloetako eguneroko informazioa erregistratzeko sistema bat ezarri, erabiltzaileak behar bezala atenditzeko.
- Egoitzako lan-taldea gehiago inplikatu garatu beharreko proiektuetan.
- Egoitzara datozen familiei egonaldieei buruzko azalpenak emateko eta zalantzak argitzeko liburuxka.
- Aldi baterako egonaldietaiko egoitzaren eta eguneko zentroen arteko informazio-bideak erautu, erabiltzaile bakoitzak behar dituen laguntzen berri izateko eta hobeto atenditzeko.

# Centros de día

## CENTROS DE DÍA

Gorabide gestiona nueve centros de día, que prestan servicios para desarrollar, mantener, incrementar u optimizar habilidades de autocuidado personal, desarrollo físico y emocional, socialización, comunicación y aptitudes pre-profesionales u ocupacionales.

### astrabudua (eradio) 16 personas usuarias

acciones destacadas

- Cambio de gestión de espacios y grupos.
- Reorganización de las actividades.
- Desarrollo de talleres ocupacionales cooperativos.
- Salidas con transporte adaptado, y participación en actividades de la oferta comunitaria.

### egintza (portugalete) 24 personas usuarias

acciones destacadas

- Flexibilización de los talleres para que sean abiertos.
- Desarrollo de la informática como actividad guiada.
- Ampliación del taller de reciclaje a plásticos y pilas.
- Instalación de un acuario y mantenimiento colectivo.
- Salidas para participar de las ofertas comunitarias.
- Afianzamiento de la actividad física diaria.

# Egunelek

## EGUNEKO ZENTROAK

Gorabidek bederatzi eguneko zentro ku-deatzen ditu. Zentro hauek hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte norberaren burua zaintzeko trebetasunak, garapen fisiko eta emozionala, gizarteratzea, komunikazioa eta lanerako gaitasunak garatzeko, mantentzeko, areagotzeko eta hobetzeko.

### astrabudua (eradio) 16 erabiltzaile

ekintza aipagarriak

- Lekuen eta taldeen kudeaketa aldatu.
- Jarduerak berrantolatu.
- Lantegi okupazional kooperatiboak garatu.
- Irteerak egin garraiobide egokituekin eta komunitateko eskaintzako jardueretan parte hartu.

### egintza (portugalete) 24 erabiltzaile

ekintza aipagarriak

- Lantegiak malgotu, irekiak izan daitezen.
- Informatika garatu jarduera gidatu gisa.
- Birziklatzeko lantegia plastikotara eta piletara zabaldu.
- Arrainontzi bat jarri eta denon artean zaindu.
- Komunitateko eskaintzetan parte hartzeko irteerak.
- Eguneroko ariketa fisikoa indartu.

## eretza (**portugalete**)

28 personas usuarias

## acciones destacadas

- Incremento de la participación de las personas usuarias que presentan más limitaciones.
  - Talleres de comunicación y percepción espacio-tiempo.
  - Aumento de las ofertas de ocio de tipo colectivo.
  - Talleres con producto final para enviar a las familias.
  - Actividades exteriores de la oferta comunitaria.

gernika

14 personas usuarias

#### acciones destacadas

